

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Anne Frank errusiarra

WWW.WORDPRESS.COM

SAN PETERSBURGO, 1941-1944. Alemaniarrek garai hartan Leningrad zeritzon hiria setiatu zuten eta blokeoak 872 egun iraun zuen. Tarte horretan milioitik gora pertsona hil ziren hirian, %90 goseak jota.

Tatiana Savitxeva haurra, familia txirokoa izaki, hamar urte zituela hasi zen sobietar armadarentzat lanean: lubakiak zulatzen, barrikadak prestatzen eta teilatuak zaintzen, etsaiak su-bonbak jaurtitzen zituenean lehenbailehen itzaltzeko. Egun batez, Nina ahizpa lanera joan eta ez zen itzuli. Senitartekoez hilda zegoela pentsatu zuten eta amak Ninaren ohar-liburuxka bat eman zion Tatianari, ahizpa nagusiagoa gogoan izan zezan.

1941eko abenduaren 28an, minak muntatzeko fabrikatik bueltan, Zhenia ahizpa hotzak hil zuen eta orduan erabili zuen lehenengoz Tatianak beste ahizparen liburuxka. Guztira bederatziz orritxo erabiliko zituen hauxe idatzeko:

1. Zhenia 1941eko abenduaren 28an hil zen, 12:30ean.
2. Amona 1942ko urtarrilaren 25ean hil zen, arratsaldeko 3:00etan.
3. Leka 1942ko martxoaren 17an hil zen, goizaldeko 5:00etan.
4. Osaba Vasia 1942ko apirilaren 13an hil zen, gauerdia eta bi ordu geroago.
5. Osaba Lesha 1942ko maiatzaren 10ean, arratsaldeko 4:00etan.
6. Ama 1942ko maiatzaren 13an, goizeko 7:30ean.
7. Savitxevtarrak hil egin dira.
8. Denak hil dira.
9. Tanya besterik ez da geratu.

Tatiana 1942ko abuztuan erreskatatu zuten beste 140 haurrekin batera, eta Krasni Bor herriko



Ezkerrean Tatiana Savitxeva (senitartekoentzat Tanya). Alboan, haurrak Leningradeko setioaren lekukotza jaso zuen egunkari labur eta gordina. Eskuizkribu originala San Petersburgoko Historia Museoa dago egun, eta tamaina handiko kopia neskatoaren omenezko monumentua osatzen du hirian bertan.

ospitalera eraman zuten osa zedin. Baina ikusmena galduta eta elikadura urritasunari aurre egin ezinda, hesteetako tuberkulosiak jota hil zen 1944ko uztailaren lehenean, 14 urte zituela.

Akaso Leningradeko biztanle askok xehetasunez beteriko egunkari luzeagoak idatziko zituzten, Amsterdameko "atzeko" etxean Anne Frankek egin bezala. Baina nazien setioaren negu gogorretan, altzariekin batera, liburuak ere erre zituzten berotasun pixka bat lortzearren. Tatiana Savitxevak errusieraz idatzitako 60 hitzak ez zituzten inoiz argitaratu. Baina Nurembergeko epaiketetan frogatuta gisa erabili zituzten.

Arrastoak

Nondik datorkio izena nikotinari?

JEAN NICOT DE VILLEMEN izeneko frantziar diplomazialaria bere herriko enbaxadore zen Portugalen XVI. mendean erdialdean. 1550ean, tabako haziz betetako poltsatxo bidali zion Katalina Mediciri Parisko gotera. Substantziak arrakasta handia izan

zuen Europako goi klaseetan eta, hala, nahiz eta tabakoa Amerikatik espainiarrek ekarri zuten eta tabako hostoetatik lortzen den alkaloidea lehenengoz 1828ra arte isolatu ez arren, nikotinari berau zabaltzen lagundu zuen enbaxadorearen izena jarri zioten.



WWW.DEFINICIONABC.COM